Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2019ko otsailaren 27ko 18:30ean, Erroibarko Udala bildu zen, lehen deialdian, bilkura arrunta egiteko; bertaratu ziren zinegotziak: Alvaro Villanueva Azcarate, Miguel Echamendi Hernandez, Joaquin Maria Martinez Choperena, Joseba Martinez Rey eta Eduardo Urtasun Vidondo; alkatea, Enrique Garralda Erro, Mahaiburu izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Jesus Esteban Juanarena Apestequia zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du. Gai zerrendako lehenengoari ekin baino lehen EH Bildu taldeko zinegotziak, Martinez Rey, jakinarazi du bilkura grabatu behar duela.

1.- 2018KO ABENDUAREN 27KO AKTA ONARTZEA.

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta adierazi du nahiz eta zehaztu daitekeen zerbait dagoen, orokorrean, bere taldeak ez duela aktari buruz deus ere esateko, eta, aho batez, 2019ko abenduaren 27ko bilkuraren akta onartzea.

Aktei eta haiek idazteko moduari dagokionez, idazkariak hitza hartu du eta esan du horren gainean prestatu duen txostena irakurri nahi duela. Txosten hori prestatu duela Martinez Rey zinegotziak kexa aurkeztu duelako, bere ustez, idazkariak aktak gaizki idazte dituelako edo horien idazteko modua alderdikoia delako, eta kexa hori behi eta berriro gertatu baita azkeneko bilkura arruntetan.

“Lehenengo eta behin, akten edukia arautzen duten legezko atalak eta ondoren gogoeta pertsonalak aipatzen dira.

ALDE JURIDIKOA

Aktaren edukia Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 109.1.g artikuluan bilduta dago; Erregelamendu hori azaroaren 28ko 1568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen; erregelamenduan esaten da Aktan bilduko direla, besteak beste, aztertuko diren gaiak eta horien eztabaidetan parte hartuko duten udalbatzako taldeen edo kideen iritzi laburtuak. Ildo berekoa da apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak onetsitako Tokiko Erregimeneko Legezko Xedapenen Testu Bateratuarren 50. Artikulua, horretan esaten baita emandako iritziak modu “laburtuan” bildu behar direla. Beste aldetik, Udalbatzako kideren batek uste badu gai zehatz batek esandakoa edo erabakitakoa adieraztean zalantzak sortzen ahal dituela, lehen aipatutako Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 91.1 artikulua dioenari jarraituko zaio; horretan esaten da bilkura hasten denean Bilkura buruak galdetuko duela udalbatzako kide zenbaitek deialdiarekin batera banatutako aurreko bilkurako aktari oharpenik egin nahi dion. Oharpenik egon ezean onetsitzat emango da. Oharpenak dauden kasuetan zuzenketak eztabaidatu eta erabakiko dira, baina ez da inola ere ez hartutako erabakien funtsa aldatuko eta aldatu ahalko den bakarria izanen da akats materialak edo izatezkoak. Akta bakoitzean aurreko aktaren irakurketa eta onespena aipatzen den zatian, egin diren oharpenak edo zuzenketak sartuko dira.

Bukatzeko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2018 Legearen 18. Artikuluak dio 1. Eginen den bilkura bakoitzeko idazkariak akta eginen du, eta honakoak agertuko dira ezinbestean: bertaratuak, bilkurako gai zerrenda, non eta noiz egin den, eztabaidetan esandako gauza garrantzitsuenak eta hartutako erabakien edukiak. *Osoko Bilkurak grabatu ahal dira. Grabaketaren fitxategia, idazkariak hura benetakoa dela ziurtatzen duen agiriarekin batera eta erabiliko diren euskarri elektronikoko dokumentu oro, aktarekin batera jar daitezke, eta, halakoetan, ez da beharrezkoa izanen eztabaidetako puntu nagusiak aktan agertzea.* 2. Bilkura bakoitzeko akta bilera berean edo hurrengoan onar daiteke. Idazkariak akta prestatuko du alkate-udalburuaren oniritziarekin eta organoko kideei bide elektronikoak erabilia igorriko die; kide horiek bide berdina erabilia, adostasuna adierazi ahalko dute baita oharpenak egin ere, onar dadin, eta, ados egongo balira bilera berean onetsitzat emango da.

Egindako bilkurak grabatzen direnean edo euskarri elektronikoko dokumentuak erabiltzen direnean, fitxategi elektroniko horien segurtasuna eta egiazkotasuna bermatzeko moduan gordeko dira eta organoko kideek horiek eskuratu ahalko dituzte.

GOGOETA PERTSONALAK

Aurrekoa esanda eta ikuspuntu erabat formala kontuan hartuz, neuri batean ala bestean, legeak dioena betetzen dela, dugula, kontuan hartuz, interpretazioaren atalera pasatuko naiz, hori baita zalantzan jartzen dena. Martinez Rey zinegotziak adierazten du modu orokorrean eta sistematikoan, aktak idazteko modua alderdikoia dela, edo, beste era batera esanda, gobernu-taldearen onurarako eta bere taldearen kontra idazten direla. Ez dut uste horrela denik eta, behin eta berriz errepikatuta ere, ez da horrela izango. Profesionala naizen aldetik eta gaian eskarmentua handia dudanez, uste dut batz besteko hiru orduko iraupena duten bilkuretan, erabaki zehatzez gain, parte hartzen dutenen iritziak jasotzen ditudala, era laburtuan, legeak dioen bezala, bestela ezinezkoa

izango litzatekeelako akta idaztea, are gehiago, EH Bildu udal taldeak dituen grabaketak entzunez gero, behar izan ditudanean nire eskura izan ditudanak, hori horrela ez dela froga daiteke. Hanka sar dezaket edo esandako zerbait gaizki ulertu ere, zalantzarik gabe, hortaz, akta onetsi aurretik harekin ados dauden edo ez galdetzen da, eta zerbait gehitu edo aldatu behar den, baina aktak idatzeko nire modua alderdikoia dela esatea justua ez izateaz gain gezurra da, nahiz eta behin eta berriz hori esaten den.

Azkenik eta esan nahi dudanaren eredu gisa, 2018ko abenduaren 27ko bilkuran “aktan beraiek esan ez zuten gezur handi bat jarri nuela” leporatu zitzaidan. Gezur handi hori zein zen galdetuta erantzun zidaten Artzapezpikuari igorritako eskutitzaz aritzen den zatian jarri nuela *beraiek esaten zutela zenbait kontzejuburuek bortxatuta sentitu zirela*; “bortxatu” hitzari dagokionean, esan zuten beraiek ez zutela hitz hori erabili, ezta erabiliko ere, eta erabili zuten hitza “behartu” izan zela. Bi hitzak sinonimoak direla argitzeaz gain eta, hortaz, bata ala bestea erabiltzea berdin bada ere, egia da ez zela ez bat ez bestea erabili, izan ere, Martinez Rey zinegotziak esan zuena hau izan zelako: *“Entzun dut alkate horietako asko edo herri horietako asko, modu batean ala bestean, eta ez dut izenik aipatuko, ia BEHARTUAK sentitu direla sinatzeraz”*.

Horrekin guztiarekin esan nahi dudana da, nahiz eta gustokoa ez izan, aktak idazteko nire modua gustokoa ez izatea errespetatzen dudala; eta idazten ditudan aktetan akatsak egin ditzakedala edo ez horren ongi asmatzea; baina hortik aktak gaizki edo era alderdikoian idazten ditudala esatera tartea badago, eta ez dut onartuko nire profesionaltasuna eta objektibotasuna zalantzan jartzea, eta horretan tematzen badira, akusazio horiek beste erakunde batzuk frogatu beharko dituzte.

Idazki honen helburua ez da, inola ere ez, kargu politikoen eta nire artean konfrontazioa sortzea, izan ere ahal bezain adostaile izaten saiatzen naiz, eta nahi dudana da nire jarrera argitzea eta nire ardura profesionala betetzea, hots, kargu publikoei era objektiboenean aholkatzea”.

Txostena irakurri ondoren, Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta bere harridura adierazi du ez zuelako horrelakorik espero, eta, nahiz eta bere taldeak erantzuna eman behar dioela uste badu ere, esan nahi du ongi iruditzen zaiola gauzak argi eta garbi esatea. Dena den, lehenengo zatiari buruz ez du ezer esateko, juridikoa baita, eta legeak hori ezartzen baitu, besteak beste Udalak bilkurak grabatzea erabaki dezakeela, baita aktei erantsi ere. Modu horretan Udalaren web orrian jar litezke. Eta bigarren zatiari dagokionean, sentitzen du idazkariak gaizki hartzen badu edo bere burua zalantzan ikusten badu, baina berak uste du aktek egitura formalagoa izan beharko luketela, ez dagoela ados puntu zehatz batzuekin, eta nahiz eta iritzi asko dauden, zenbait kasutan ez dago ados horiek isladatzeko erarekin ez orokorrean, eta gaineratu du aktak ahal bezain argiak izatea nahiko lukeela eta bi asteko epean eskuratzea egokia ikusten duela berrikusteko, bestela gauzak ahazten direlako.

2.- 2018KO ABENDUAREN 22TIK 2019ko OTSAILAREN 22A ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Garralda jnk., 2018ko abenduaren 22tik 2019ko otsailaren 22a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du. Udalkideak jakitun dira.

Martinez Choperena zinegotziak hitza hartu du eta ebazpen hauei buruzko argibideak eskatu ditu:

1/2019 Ebazpena, 2018ko aurrekontuko luzapenari buruzkoa. Datak aldatu behar dira, gaizki daudelako, 172018 ebazpenaren ordean 1/2019 jarri behar du eta 2018ko aurrekontua 2019ra luzatzea da, ez 2017koa 2018ra.

20/2017 Ebazpena, Udalak duen zorduntzari buruzkoa, horretan ikusten da handitu dela eta azpimarratu da zorrak dituenak ezinen duela Udalak ematen dituen diru-laguntzarik kobratu.

3.- SOROGAINGO BAZKALEKUEN APROBETXAMENDUAREN ARAUAK 2019. URTERAKO

Batzordeak izandako bileraren ondoren, Udalbatzak erabaki du aho batez Sorogaingo bazkalekuen aprobetxamenduaren honako arauak onartzea 2019rako.

1.- Frantses ardi-azienda sartzeko debekua mantentzea 2019. urtean.

2.- Frantses eta kanpoko zaldi-azienda sartzeko debekua mantentzea.

3.- Sorogaingo bazlekuen aprobetxamenduaren 2019ko arauak onestea. Hona hemen:

3.1. Aziendaren antolamendua:

- a) Apirilaren 1etik aitzina azienda Arbilletan bakarrik sartu ahalko da.
- b) Debekaturik dago egun hori baino lehen azienda sartzea Sorogaingo bazkalekuetan.
- c) Maiatzaren 11n ibarreko aziendaren marka egingo da eta ezkeraldea zabalduko da.
- d) Maiatzaren 11tik 25era Arbilletako eremua errespetatuko da.

3.2. Udalak, egoerak hala eskatuta, aziendaren antolamendua aldatu ahalko du.

4.- Sorogaingo bazkalekuen aprobetxamenduaren 2019ko kanonak honakoak izatea:

a) Ibarreko azienda:

Behi-azienda	33,00 €
Zaldi-azienda	43,00 €
Ardi-azienda(Maiatza)	4,30 €
Ardi-azienda (Uztailak 15)	2,15 €
Ahuntz-azienda	4,50 €

b) Frantses-azienda:

Behi-azienda	71,00 €
--------------	---------

c) Kanpoko azienda:

Behi-azienda	71,00 €
--------------	---------

5.- Debekuak:

- a) Aurizko arrazakoak ez diren garañoak sartzea debekatzea

b) Idiskoak eta zezenak sartzeari debekatzea

6.- Aziendaren markak ondoko toki eta ordutegian egingen dira:

- Udaberriko marka: 2019ko maiatzaren 11n, Sorogaingo korlean, goizeko 9:00etatik arratsaldeko 14:00etara.

- Urepeleko marka: 2019ko maiatzaren 25ean, Urepelen, goizeko 10:00etatik aitzina.

7.- Marka egunetan markatzen ez diren azienda guztiak ostiraletan bakarrik markatu ahalko dira Sorogaingo eskortan (etxearen ondokoan), 8:00etatik 14:00etara. Azienda horiek %10 gehiago ordainduko dute. Azienda aldaketak egiten dutenei %10 gehiago kobratuko zaie.

8.- Sorogainen bazkatzera sartuko diren azien jabeek horien legezko osasun ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte bazkalekuetara sartu baino lehen.

9.- a) Sorogainen azienda sartzeko interesa duten Erroibarko bizilagunek izena eman beharko dute udaletxean urte bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen.

Ordaintzeko baldintzak: Sorogainen sartuko den azienaren prezioaren %50 urteko apirilaren 30a baino lehen ordaindu behar da. Ordainketa hori azienda sartu baino lehen egin behar da. Gainerako %50a urteko uztailearen 31 baino lehen ordainduko da. Aipatutako zenbatekoak ordaintzen ez dutenei Udalak ez die PAC delakoarentzako hektarearik ziurtatuko eta hurrengo urtean ezingo dute azienarik sartu Sorogainen.

Uztailean sartuko den azienari dagokion kopuru guztia urteko abuztuaren 31 baino lehen ordainduko da.

10.- Baigorriko Sindikatuak Sorogainen sartuko den azienaren zerrenda urteko maiatzaren 10a baino lehen aurkeztu beharko du, baita dagokien kanona ordaindu izanaren agiria ere.

11.- Urepeleko Markaren egunean Sorogainen sartuko den frantses azienaren %75 gutxienez oinez sartu behar da; gainontzekoa kamioietan sartu ahalko da Baigorriko Sindikatuak baimendu ondoren.

12.- Udaberriko markan Sorogainen bazkatzera sartuko diren ibarreko azienak, data hori baino lehen ere sartu ahalko dira, baina Arbilleta eremuan bakarrik. Azienda horiek Marka egunean korlora jaitsi beharko dira nahitaez.

Modu berean, marka eguna ez den beste egun batean azienda sartuko duten Erroibarko eta Frantziako abeltzain guztiek, ezarritako kanonaren %20ko erretegia ordaindu beharko dute. Kasu horietan ezingo da inolako arrazoi justifikaturik alegatu.

13.- Sorogainen sartu ahal den azienda kopurua baino gutxiago sartuko balitz, uztailearen 15etik aitzina Udalak aukera emango die lehenengo Ibarreko abeltzainei, eta, ondoren, kanpokoei, uztailearen 15etik aitzina azienda belar-erdira sartzeko. Kasu horretan ordainduko den kanona denboraldi osoari dagokionaren %50 izango da.

- 14.- Abeltzain bakoitzeko UGM kopurua gehienez ere 80 UGM izanen da.
- 15.- Abeltzainekazienda Sorogainera eramaten duten aldioro guardari jakinarazi beharko diote, bazkalekuak behar bezala kontrolatzeko.
- 16.- Irailaren 1etik aitzina sartuko den ardi-azienda buru bakoitzeko 1,3 € kobratuko da.
- 17.- Marka egunean ez da aziendarik markatuko gurdien barnean.

PAC delakoari dagokionez, batzordea egitea erabaki da, Martinez Rey zinegotziak dioen moduan, joan den urtean gertatutakoa berriro gerta ez dadin. Garralda jk. Alkateak, hitza hartu du eta jakinarazi du balitekeela Erron tuberkulosi kasuren bat agertzea, eta horrela izan balitz, irtenbidea emateko erabakiak hartu beharko liratekeela. Batzordea martxoaren 20aren inguruan egitea proposatu da.

4.- BASO JARDUERAK 2019. BALDINTZA PLEGUEN ONESPENA.

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Erroibarko Udalarari 2018/2019 epealdian baso jarduerak egiteko diru-laguntza eman zaiola, bi bazpenen bidez, egin beharreko lanak neurri ezberdinetan sartu baitira, 403/2018 Ebazpena (08.05.01 neurria) eta 402/2018 Ebazpena (04.03.05 neurria). Modu berean jakinarazi da kanpoan gelditu dela Larraingoatik ur-biltegi daraman pista, Sorogaingo sasi garbiketarak, Measkoitzeko egin beharreko zati bat, eta proiektuan aurreikusitako gainerakoa sartu dela. Aintzioari dagokionez, Martinez Rey zinegotziak dio Aintzioan egin beharreko sasi-garbiketaren zati bat sartu dela, eta herri horretako lurzati baterakuntzari ekin behar zaiola dio, eta alkateak proposatu du jabeekin eta Nafarroako Gobernuarekin bilera egitea. Egin behar diren lanei dagokionez, aho batez erabaki da sasi-garbiketarak eta itxiturak, 15.165,79 gehi BEZa, alde batetik adjudikatzea, kopuru txikia duten kontratuen erregimen bereziko prozedura erabilita, eta, gainerakoa, pistak, eta abar, 32.963,23 gehi BEZa, prozedura irekiaren bidez Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuz, eta baldintza plegua onestea.

5.- MEDIKUAREN ETXEA: ALOKATZEKO MODUA ETA SUKALDEKO AURREKONTUA

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta esan du sukaldeko aurrekontua 6.631,84 euro (BEZ barne) dela; kalitate ertaineko aurrekontua eskatu zuen, eta, besteak beste, gaina granitozkoa izatea, konglomeratua baino askoz ere sendoagoa baita. Modu berean galdara lekuz aldatzea proposatu du eta dagoena kentzea.

Aho batez erabaki da aurrekontua onartzea, baita Martinez Rey zinegotziak galdarari buruz proposatu duena ere.

Alokairuari dagokionez, alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Nasuvinsarekin harremanetan jarri zela eta Aurizberriko Kontzejuan egin duenaren antzeko zerbait egitea, hau da, medikuaren etxea Nasuvinsari uztea, eta beraiek alokairuaz eta baldintzaz arduratzea.

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta esan du Aurizberriko kontzejuak egin duena ez dela gauza bera, hitzarmen bat sinatu baitute etxea urte askotarako utziz, zaharberri

eta kudeatzearen truke, inbertsio osoa berreskuratu arte. Erroko kasuan, Nasuvinsak alokairuaren adjudikazioaz arduratuko litzateke, baldintza batzuk jarritz. Modu horretan, Udalak arazoak saihesten ditu, adibidez, maizterrak ordainduko ez balu, ez luke zertan harekin hitz egin behar. Modu berean, jakinarazi du orain arte, modu horretan etxebizitzaren blokean kasuetarako bakarrik zegoela aurreikusita, eta norbanakoen etxean kanpo utziz, hori gertatzen baitzen gehienbat landa eremuan, baina izan diren kexak kontuan hartuta, hemendik aurrera familia etxebakarrak ere sartuko direla, eta modu horretan alokatu ahalko dela.

Aho batez erabaki da Nasuvinsarekin hitz egitea medikuaren etxea Nasuvinsak alokatzeko duen etxebizitzaren poltsan sartzeko eta bera izatea hori kudeatzen duena.

6.- ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen arautze berria urrats erabakigarria da Administrazio modernoa eta informazioaren gizartean erabat integratua lortzeko bidean. Paradigma berri bat proposatzen du herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanetarako, komunikabide elektronikoaren erabilera izanda horren erregulazioaren oinarri. Hortaz, Erroibarko Udalak, bere kabuz antolatze eta erregelamenduak egiteko duen ahalmena erabiliz, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak pertsonen eguneroko bizitzan aldaketa sakonak sortzen ari direla oharturik eta egungo arau-esparrua den Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako helburu eta printzipioak betetzeko, beharrezkotzat jotzen du ordenantza bat onestea udal honen esparruan administrazio elektronikoaren erabilera hori arautzeko, araudi berrian jasotako oinarritzko alderdien barnean. Halaber, ordenantza hau Udalbatzak informazioaren gizartea sustatzeko arloan bultzatutako estrategiaren gailurra da, eta baita aurrerapausoa ere, benetako administrazio elektronikoa pixkanaka ezar dadin; horrek, batez ere izan behar baitu irisgarria, erraza, erabilgarria, eroso, arina, segurua, konfidentziala eta ingurune teknologiko berrietara egokitua.

Horiek horrela, aho batez erabaki da, Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikulua dioena betetzeko, administrazio elektronikoaren erabilera arautzen duen udal Ordenantza hasiera batean onartzea. Onetsitako ordenantza ikusgai egonen da hogeita hamar egun balioudunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedienteaz aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharra aurkez ditzaten. Jendaurreko epean inork alegaziorik egin ezean, ordenantza behin betiko onetsizat joko da, eta testua osorik emanen da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

7.- “PARKE MIKOLOGIKOAREN ZERBITZUAK EMATEKO” BALDINTZA PLEGUAREN ONESPENA ETA BIDERAGARRITASUN TXOSTENA

LGPren proiektua bukatuta parke mikologikoa kudeatu behar da eta, batzordea egin ondoren, parkea kudeatzeko adjudikazioa egin behar da eta parkearen titularrak diren toki entitate guztiek baldintza plegua onartu behar dute, baita Cederna Garalurrek

egindako bideragarritasun txostena, apirilaren 13ko 2/2018 Kontratuen Legeak hala eskatuta, eta prozedura irekia erabiltzea eta Nafarroako Plena eta Kontratazio Atarian argitaratzea, baita urteko kanona, 5000 eurokoa, berrikus daitekeena.

Aho batez erabaki da parke mikologikoaren kudeaketa adjudikatzeko baldintza plegua onartzea eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta esan du lehenengo parkeko entitate titularrekin bilera egin beharko litzatekeela gastuen kontu komuna egiteko aukeraz eta haren finantzazioaz hitz egiteko, eta alkatea eta gainerako zinegotziak ados daude.

8.- LANGABETUEN DEIALDIA 2019

Alkateak, Garralda jk., 2018a egin diren lanei buruzko informazioa eman du:

“Ardaitz: Karrikan porlana jartzea. Orondritz: Ur-biltegiko bidean porlana botatzea, erauntsiengatik hondatua baitago, Loizuko mugatik hurbil. Itxiturak: Ardaitz-Loizu, Aintzinoa-Larraingoa, Loizu-Orondritz, Loizu-Urniza, Urniza-Larraingoa-Ardaitz errepide guztia, Jaurerriak Erro-Esteribar ererepidea, 13 km Sorogainen, Asundegiko itxitura berria.

Herrietako bideak berrikustea, Sorogaingo pista, Ardaitz-Esnozko bidea eta Ardaitz-Larraingoa, Esnotz: Herrian sasiak garbitzea eta ur-matxura konpontzea, lizarrak kimatzea, itxiak berrikustea, herriko karriketako zuloak estaltzea. Zilbeti: Elizaren ondoko karrikan porlana botatzea; Mezkiritz: Pistetan porlana botatzea (materiala Kontzejuaren esku); Erroko medikuaren kontsultategia: Kanpoko garbiketa, andamioak jartzea, kontsultategi hauek margotzea: Mezkiritz, Biskarret, Lintzoain, Erro. Mezkiritzko elkarteak margotzea, Mezkiritz-Bizkarreta, Aintzinoa-Loizuko pistetan porlana botatzea: Bide zaharrak garbitzea; Aurizberrin ur matxurak, paretak eta eskailerak konpontzea; egur loteak markatzea Esnotzen, Erron, Zilbetin, Bizkarretan, Mezkiritzen, Ardaitzen eta Loizun”.

Bere ustez aurreko bizpahiru pertsona kontratatzea nahikoa izanen da, kontratatzen direnak eraginkorrak baldin badira lan anitz egin ahal delako, eta gainera, ibarrean horrenbeste kilometro dagoenez errazago izanen da langileak kontratatzea, eta, dena den, beharrezkoa izanen da batek gutxienez igeltsaritzaz jakitea. Ondoren 2019an aurreikusitako lanen zerrenda irakurri du:

- Sorogaingo biltegia
- Pistetan porlana botatzea, baita kontzejuak eskatu ditzaketenez zatiak.
- Sorogaingo errepideko bazterrak konpontzea.
- Jaurerrietako mugak ixtea.
- Tokiko bideak sasiz garbitzea
- Sorogaingo etxeko iparraldeko fatxada konpontzea
- Ardaizko jaurerrietan itxiturak egitea
- Bideak garbitu eta markatzea
- Herrietako lursailetan eta karriketan konponketa txikiak egitea
- Sorogain-Aztakarriko konponketak
- Lasturreko mendia markatzea (bidezainek hala eskatuta)
- Lasturren egur loteak markatzea Lintzoain eta Bizkarreterako (mendizainek hala eskaturik)
- Laurentxin mendia ateratzea

- Ardaizko tutueria ibaian lurperatzea
- Esnozko iturriak aldatzea, 2018ko proiektua hobetzea
- Sorogainen askak aldatzea
- Parke Mikologikoaren seinaleak
- Txangoako pistan baso jarduerak egitea

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta pozten dela dio, azkenean urtean zehar egin nahi diren lanen zerrenda egin baita, eta galdetu du, langabetuen deialdiaz aparte bestelako laguntzarik dagoen, hirugarren pertsona bat behin betiko kontratatzeke, uste baitu komenigarrai eta beharrezkoa dela. Garralda jk., alkateak, erantzun du pertsona bat behin betiko kontratatzeke afera gehiago aztertu behar dela ez baitu uste beharrezkoa denik urte osorako, baizik eta denboraldi batez, eta jakinarazi du mendiko bazkalekuen deialdiaren bidez algoazilaren soldataren zati bat sartzen dela.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da langabetuen deialdiaren bidez bi pertsona kontratatzea sei hilabeterako eta lanaldi osoz, horietako bat apiriletik aurrera eta bestea maiatzatik aurrera. Eta hirugarren pertsona bat kontratatzeari dagokionez gaia mahai gainean utzi da, proposatu dena gehiago landu arte.

Gai zerrendatik kanpo, aho batez erabaki da EH Bildu udal taldeak aurkeztu duen mozioaz hitz egitea, martxoaren 8ko greba eta manifestazioei buruzkoa, eta denak ados daude puntua gai zerrendan sartzearekin.

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du, mozioarekin ados badago ere, konstarazi nahi duela gaia ez dagokiola Euskal Herriari bakarrik, baizik eta Espainiari eta mundu osoari.

Ondoren, aho batez erabaki da mozio hau onartzea:

Iaz, lehenengo aldiz, Euskal Herriko Mugimendu Feministak emakumeen lan etenaldi partziala deitu zuen Martxoaren 8rako, indarkeria matxistak eta emakumeak eragiten dituen desberdintasun molde ugari eragiten dituzten desorekei aurre egiteko. Emakumeok Planto – Nosotras Paramos lelopean, emakumeak zapaltzen dituen sistema kapitalista, patriarkala eta arrazista salatu zen.

Euskal Herriko emakume askok bat egin zuten greba dei horrekin eta mugarriztat jo zen, borroka eta aldarrikapen feministek bisibilizazio handiagoa lortu ondoren Euskal Herrian.

Aurten, Euskal Herriko Mugimendu Feministak, eragile sindikal, politiko eta sozialekin batera, 24 orduko greba deia luzatu du. Greba bost ardatzetan antolatzen da: zaintza, enplegua, pentsionistak, ikasleak eta kontsumoa. Greba feminista, guztion bizitzan eragiten duten esparruetan kokatzen da, soldatapeko zein doako lanetan, kontsumo ereduan, sexualitatean, arrazakerian, etab. Horregatik, grebaren bitartez, ardura kolektibotik abiatuta bizitza sostengatzeko itun sozial berri bat eskatzen dio euskal jendarteari, berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutuz. Iaz bezala, aurten ere zaintza erdigunean kokatzen da, zaintzaren berrantolaketa soziala politika publikoen zeharkako ardatza izan behar dela aldarrikatuz.

Horregatik, eta Euskal Herriko Mugimendu Feministaren motibazioa eta proposamenarekin bat egiten dugunez,ko Udalak / Batzar Nagusiek / Parlamentuak adosten du / dute:

- 1. Mugimendu feministak deitutako grebara atxikitzea, eta erakundea osatzen dugun emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak ematea.*
- 2. Herritarrei dei egitea mugimendu feministak deitutako mobilizazioetan parte hartzeko.*

9.- BESTERIK

Alkateak, Garralda jk., honako informazioa eman du:

Udal Planaren egungo egoera

Jakinarazi da Lurraldearen Estrategia eta Okupazio ereduak laster bukatuko dela eta hura prestatzen ari den taldeak laster ekarriko duela, eta ur-biltegien, elektrizitatearen afera ere landu dela. Iberdrolari dagokionean daukaten informazio osoa bidaltzea eskatu zaie, Planean islatu behar dela eta Lurraldearen Estrategia eta Okupazioarekin bukatzeko falta den bakarra dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Medikuaren Kontsultategia

Jakinarazi da medikuen kontsultategiak berritzeko diru-laguntza deialdia argitaratu dela eta Nasuvinsari memoria berria eskatu zaiola, komunak sartzeko, eta horrekin Erroko medikuaren kontsultategia berritzeko laguntza berriro eskatu dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

20:30ean Urtasun zinegotzia bileratik atera da, lan arrazoiak direla eta.

NUKFak materialarentzako egin duen laguntza eskaera

NUKFak atera zuen deialdiaren bidez, “Gune publikoak berreskuratzeko” eta eskaera guztiak ebatzi ondoren Erroibarko Udalarari 1.850,11 euro eman zaiola.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Genero indarkeriaren alorreko diru-laguntzak Auñamendi Mankomunitatea

Jakinarazi da Estatuak onetsi duela genero indarkeriaren alorreko diru-laguntzak eman direla eta toki entitate guztiei jakinarazi zaiela eta Erroibarko Udalarari 831,20 euro dagozkiola; eta Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatean Udaletako ordezkariak erabaki zutela, toki entitate bakoitzari diru gutxi egokitu zaionez eta horrekin gauza gutxi egin daitekeenez, diru hori Mankomunitateari ematea eta berak diru-laguntza guztiak kudeatzea, hots, 9.373,00 euro. Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta esan du talde bat sortu zela gaiak arduratzeko eta atzo bilera izan zutela diru horrekin zer egin erabakitzeko, bileran Mankomunitateko langileen eta Entitatea osatzen duten erakundeetako ordezkarien artean generoaren aurkako indarkeriari buruzko formakuntzan erabiltzea. Gaiari hasiera emanen zaio eta sortu den taldeak jarraitzeko bokazioa dauka, berdintasunaren inguruko gaiez informazioa eskuratu eta lantzeko,

azkenean berdintasun plana lortzeko, dena den, pausuak emanen dira eta norabide horretan aurrera egin nahi da oraingo legegintzaldian baita hurrengoetan ere.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Bilera Industria Departamentua-Aurizberriko harrobia

Jakinarazi da bilera egin dela industria zuzendari nagusiarekin eta teknikariek, Aurizberriko harrobiaren aferaz eta hura artxibatzeaz, sustatzaileek ez baitute aurkeztu eskatu zitzaizkien inolako finantzazio justifikaziorik. Alkateak jakinarazi du sustatzaileekin bilera egiten saiatzen ari dela, gaia argitzeko.

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta esan du harritura gelditu zela Industrian eman zuten informazioarekin, justifikazio finantzarioa aurkezteko hainbat modu eskaini zizkietelako, banku zenbaiten dokumenturen bat, eta ez baitute ezer ere aurkeztu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Pirinioko Mahaia-Turismo eta zerbitzuen taldea

Martinez Rey zinegotziak jakinarazi du Pirinioko Mahaiko turismo eta zerbitzuen taldeak proposatu duela Cedernaren bidez eta hitzarmen bat sinatuta, pertsona bat kontratatzea sare sozialak, baliabideak, eta abar Pirinioaren mailan lantzeko. Kontua litzateke pertsona bat lanaldi erdiz kontratatzea bi urterako Cedernaren bidez, eta toki entitateek hitzarmena sinatu beharko lukete eta soldata denon artean ordaindu, biztanleen arabera, JEGZren arabera, lojamendu plazen arabera, eta abar. Echamendi zinegotziak galdetu du norentzako den onuragarria hori, adibidez landa etxeak baldin badira eta ez badute ezer eman behar, bera ez dagoela ados. Martinez Rey zinegotziak erantzun du eskualdea dinamizatu behar dela eta denontzako onuragarria izatea. Badagoela turismo eskaintza ona baina inork ez duela garatzen ezta planifikatzen ere eta pertsona horrek hori guztia egingo lukeela. Dena den, banaketa berrikusi behar da eta argi izan zeintzuk diren parte hartuko duten toki entitateak.

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta adierazi du ez duela gaia argi, horrelako zerbait egin zelako Pirinioko Partzuergoarekin, 25.000 € gastatu zirela eta norbaitek diru hori poltsikora eraman baino ez zuela ezertarako balio izan. Villanueva zinegotzia horrekin ados dagoela dio eta gaineratu du dezepzio handia eman duela Nafarroako Gobernuak ez baitu deus ere egin.

Gaia argi ez dagoenez eta erabakia hartzeko informazio gehiago behar denez, erabaki da Oroz-Beteluko alkatearekin, Javier Larrea, ideiarekin sustatazaile izan denez, bilera egitea azalpenak eman eta zalantzak argitzeko eta zerbitzuzaren kostuak zein banaketa gehiago zehazteko.

Pirinioko Mahaia-plan estrategikoa

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta esan du Pirinioko Mahaia dela eta Gobernuak plan estrategikoa ateratzeko konpromisoa hartu zuela, planteamendu zehatzak eginez. Bilera egiten da martxoaren 12an Ezkarotzen eta hor eskatuko zaie planteamendua toki guztietan azaltzea. Modu berean Legebiltzarreko ponentzia onetsi zenean, Jarraipen Batzordea sortzeko konpromisoa hartu zela horren guztiaren jarraipean egiteko. David Anaut legebiltzarreko kidea horren gaineko azalpenak ematera etorriko da. Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du gehiago zehaztu behar dela, ez bakarrik lanak egin eta armairuan sartuko diren txostenak idaztea, gero ez dutelako ezertarako balio. Martinez Rey zinegotziak erantzun du lan horrek guztiak bere

emaitzak izanen dituela, agian ez orain baino bai etorkizunean eta, hortaz, eskualde mailan lan egiten jarraitu behar dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Laurentxi

Martxoaren 8ko ekitaldiak direla eta Laurentxi Elkarteari baimena eman zaio Udalaren ibilgailua, megafonia, eta abar erabiltzeko.

10. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 21:15ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.